

## **Funtsezko jarduerak**

Atal honetan, bakoitzaren ezagutza eta abileziak kontuan hartuta, taldean bakoitzak egingo dituen lanak banatuko ditugu gure lanari ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko moduan.

Hasteko, lehenik egingo dugun lana gure produktuak diseinatzea izango da. Lan hau Aratzen esku egongo da, marrazketa teknikoan dituen ezagutzak kontuan hartuta bere moduko lan bat izango da eta egiteko prest egongo dela dakigu. Izan ere, Aratzek bere lanak eta ardurak betetzeko duen determinazioa izugarria da. Lan hontan, taldekideek ditugun ideiak eman eta hainbat bozeto egin ondoren, Aratzek ideia hauek modu teknikoan plasmatzeko ardura izango du. Produktu desberdinen diseinuak modu milimetrikoan egin beharko ditu, makinak modu hontan programatzeko behar izango baitira.

Azkenik, guk bezeroarekiko edukiko dugun harremana kontuan hartuta, webgunearen kudeaketa ondo egitea betebeharrezko lan bat dela konturatu gara, hontaz Julen arduratuko da. Egindako ikastaroen ondoren Julenek interneti eta webguneei buruz edukiko duen jakintza taldeko handiena izango da. Lan hontan Julenek webgunea sortzeaz gain, webguneko erosleen kritikak eta kejak irakurri beharko ditu, kritika hauek irakurri ondoren bere eskuetan dagoena egingo du gure interneteko posizioa ahalik eta hobereana izatera iristeko ideiarekin.

Egin beharreko lan garrantzitsuenetako bat gure diru sarreren eta gastuen kudeaketa izango da, lan hau Ikerrek egingo du. Bere matematika eta ekonomia ezagutzak erabilita hainbat kontu eraman beharko ditu egunera ezerk gure eskuetatik ihes egin ez dadin. Lortutako emaitzak talde osoaren aurrean aurkeztu beharko ditu, emaitza hauek ikusita talde osoan gauzak ondo egiten ari garen edo zer hobetu behar dugun eztabaidatzeko.